



**JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

31671 ARIBE (Navarra) - CIF: P3175000C
Tel: 948 76 43 75
junta@aezkoa.net
valledeaezkoa@gmail.com
www.aezkoa.org

Ariben, 2023ko urriaren 3an, eguerdiko ordu batean, Aezkoako Batzarre Nagusiak bilkura arrunta egin du, lehenengo deialdian, legez deituta, haren presidente titularrak zuzenduta eta jarraian adierazten diren kideak bertan zirela, eguneko honako gai hauek aztertzeko:

BILDUTAKOAK

Batzarreburu jauna: Karlos Bueno Reka

Batzarrekide jaun/anderak: - Galarza Larrayoz, Maria Carmen - Merino Iriarte, Juan Esteban.

LEHENA.- AURREKO BILKUREN AKTAK ONESTEA

Eragozpenik agertu ez baita, onetsi dira 2023ko abuztuaren 8ko eta irailaren 28ko (esan esterreri zuzentzeko) bilkuren aktak.

BIGARRENA.- KULTUR OLAKO TABERNA-JATETXEA KUDEATZEKO KONTRATUA ESLEITZEKO LIZITAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Taberna-jatetxea kudeatzeko eskaintzak aurkezteko epea igarota, proposamen bakarra aurkeztu da. Proposamen hori Lizitazio Plataformatik kanpo bidali da, lizitatuzailearen ziurtagiri elektronikoarekin arazo tekniko bat baitago, baina ezin izan da konpondu, eta egiaztatuta geratu da euskari teknikoa duten kontaktu segida baten bidez. Era berean, harremanetan egon gara Nafarroako Kontratazio Batzordearekin, bidalitako eskaintza onartu edo ez erabakitzeke. Aurkezpen prozesuan gertatutakoa ez da plataformaren arazo tekniko bat izan, ez eta lizitatuzaileak aurkezpen prozesuan izandako arazo bat ere; aitzitik, Suitzan emandako ziurtagiria ez da onartu plataformako eragiketa telematikoaerako, eta, beraz, ezin izan du proposamena erregistratu.

Nafarroako Gobernuako Kontratazio Batzordeari kontsulta egin ondoren, aurkeztutako eskaintza onartzea erabaki da, lizitazioarako sarbidea errazte aldera. Beraz, proposamena dagokion kontratazio mahaiari aurkeztuko zaio, baldintza agirian zehaztutako irizpideen arabera ebaluatu dezan.

HIRUGARRENA.- NATUR PRODUKTUAK ORDENANTZA ALDETZEKO PROPOSAMENA

Jakinarazi da Foruzaingoak bidalitako salaketa akta bat jaso dela, produktu naturalak baimenik gabe biltzeari buruzkoa. Akta irakurrita, egiaztatu da egungo erregulazioa ez dagoela osorik, eta konpondu beharreko gabezia asko dituela, bai egitateen mailaketari dagokionez, bai Ordenantzak hainbat ataletan ezarritako zehapenei dagokienez, bai horiekin lotutako zehapenei dagokienez, bereziki produktuak konfiskatzeari dagokionez, hori ez baitago jasota.

Osoko Bilkurak erabaki du zehapen espedientea tramitatzea eta ordenantza aldatzeko lanari ekitea.

LAUGARRENA.- EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK. 2022-2023 IKASTURTEA

Aezkoako Batzarre Nagusiaren Osoko Bilkurak erabaki du dirulaguntzak eskatzeko epea irekitzea, 2022ko irailetik 2023ko abuztura bitartean euskara ikastaroak egin dituztenentzat. Aurreko ikasturteko dirulaguntzak arautu zituzten oinarri berberak izanen ditu. Horretarako, bidezko deialdia argitaratu da web-orrian.

Laguntza horiek 2023ko 3350-4800002 (Euskara-ikastaroetarako dirulaguntza) partidaren kontura ordainduko dira. Xede horretarako gehienez 5.000 € erabiliko dira.

BOSGARRENA.- LANGILE BATEK ESKATUTAKO ESZEDENTZIA

Informatu da Iratiko Zaintza eta Informazio zerbitzuko I. Ubau langileak eskaera bat aurkeztu duela. Eskaera horretan, Batzarre Nagusiari eskatzen dio irailaren 19tik borondatezko eszedentzia ematea. Presidenteak eskaera horren aldeko ebazpena eman du, eta langilearen eszedentzia deklaratu du, Foru Komunitateko Administrazioak izenpetutako lan-kontratuko langileen Hitzarmen Kolektiboaren 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Batzarre Nagusi hau horri atxikita baitago.

Langileak interes partikularrak adierazten dituen egindako eskarian, eszedentziaren baldintzak honako hauek dira:

- 1- Jatorrizko plaza lehen hemezortzi hilabeteetan gordeko da.
- 2- Borondatezko eszedentzia mugagabea dela ulertuko da beti.
- 3- Behar bezala justifikatutako premiaren kasuan izan ezik, borondatezko eszedentzian dagoen langileak ezin izanen du zerbitzu aktibora itzultzeko eskatu harik eta egoera horretan urtebete egin arte. Lanera itzultzea erabaki ondoren, hilabeteko epean itzuli beharko da lanera. Horrela egin ezean, langileak bere izaera galduko du.
- 4- Langileak maila eta eskuratutako antzinatasuna gordeko ditu, baina ez du eskubide ekonomikorik sortuko, eta egoera horretan emandako denbora ez zaio inola ere zenbatuko.

Era berean, jakinarazi da dagoeneko zerbitzua berrantolatu dela, ordezkapenak egiteko eta zerbitzua indartzeko zerrendan geratu ziren hautagaiei deituta.

Batzarre Nagusiak onartu ditu egindako kudeaketak.

SEIGARRENA.- 2022KO JARDUNALDIKO KONTUAK

2022ko ekitaldiko kontuen behin betiko espedientea berrikusi da, eta urteko partidak eta emaitzak azaldu dira. Batzarre Nagusiak otsailaren 3an egindako batzarrean aurkeztu zuen behin-behineko likidazioa, 2023rako aurrekontuarekin batera.

Kontuen itxiera aztertu ondoren, Batzarre Nagusiaren Osoko Bilkurak onartzea erabaki du, eta, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 305. artikuluan xedatutakoa betez, jendaurrean jarriko da iragarki oholean eta erakunde horren web orri instituzionalean, hamabost eguneko epean, iragarkia argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdun guztiek aztertu eta erreklamazio kontuak egin ahal izan ditzaten. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, kontuak behin betiko onartutzat joko dira.

Honako hau da Kontuen laburpena:

Kap	Izena	Behin betiko aurikuspenak	Aitortutako betebeharrak	%
1	Langile gastuak	342.848,00	258.879,18	75,51
2	Ondasun arruntak eta zerbitzuak	213.048,50	173.510,29	81,44
3	Finantza gastuak	0,00	0,00	0,00
4	Transferentzia arruntak	52.030,00	42.626,76	81,93
6	Inbertsio errealak	400.800,00	279.100,02	69,64
7	Kapital transferentziak	0,00	0,00	0,00
8	Finantza aktiboak	0,00	0,00	0,00
9	Finantza pasiboak	0,00	0,00	0,00

GUZTIRA	1.008.726,50	754.115,25	74.76
----------------	---------------------	-------------------	--------------

Diru-sarreren kapitulua

Kap	Izena	Behin betiko aurikuspenak	Aitortutako betebeharrak	%
1	Zerga zuzenak	0,00	0,00	0,00
2	Zeharkako zergak	0,00	0,00	0,00
3	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	171.000,00	107.257,79	62.72
4	Transferentzia arruntak	141.126,50	141.100,78	99.98
5	Ondare/lurren aprobeixamenduagatikoko sarrerak	419.100,00	699.431,99	166.89
6	Inbertsio errealeen salmenta	0,00	0,00	0,00
7	Transferentziak eta beste kapital-sarrerak	277.500,00	125.242,99	45.13
8	Finantza aktiboak	0,00	0,00	0,00
9	Finantza pasiboak	0,00	0,00	0,00
TOTAL		1.008.726,50	1.073.033,55	106.38

Diruzainza laburpena:

Kobratutakoak		Ordaindutakoak	
Aurrekontu arrunta	677.094,51	Aurrekontu arrunta	697.067,37
Itxitako aurrekontuak	136.276,74	Itxitakoa aurrekontuak	9.082,50
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	21.734,34	Aurrekontuz kanpoko gastuak	51.134,33
Barne mugimenduak	12.190,50	Barne mugimenduak	12.190,50
KOB RATUTAKOAK, GUZTIRA	847.296,09	ORDAINDUTAKOAK, GUZTIRA	769.474,70
Hasierako gerakinak	152.720,40	Bukaerako gerakinak	230.541,79

2021eko ekitaldiko aurrekontu emaitza doituia 298.240,14 €-koa da, eta, informazio gisa, aurreko ekitaldiko emaitza (2021. urtea): 51.201,84 €.

Diruzaintzako gerakinaren egoera honako hau da:

- Atxikitako finantzaketa duten gastuengatikoko diruzaintzako gerakina: 0,00 €
- Atxikitako baliabideengatikoko diruzaintzako gerakina: 95.907,05 €
- Gastu orokorregatikoko diruzaintzako gerakina: 463.190,99 €

Ekitaldiko emaitza ekonomikoa 472.774,33 eurokoa da.

Osoko Bilkurak erabaki du aurreko ekitaldiaren eta aurtengo ekitaldiaren exekuzioa berriro berrikustea, 2024. urteko aurrekontuak egiteko.

ZAPIGARRENA.- ZENBAIT

- Etxeko animaliak Kultur Olara sartzen uztea.

Batzarre Nagusi honi egindako kontsulta baten ondorioz, Osoko Bilkurari aurkeztu zaio txakurrak edo etxeko beste animalia batzuk Kultur Olara sartzen uzteari buruzko erabakia hartzea. Animalien eskubideak eta ongizatea babesteko martxoaren 28ko 7/2023 Legean zehaztutakoarekin bat etorriz, eta kanpotik behar bezala seinaleztatu eta ikusteko moduko berariazko debekurik ez badago, etxeko animaliak eraikin eta egoitza publikoetan sartu ahal izanen dira. Nolanahi ere, laguntza txakurrak edozein gunetara sartu ahal izanen dira,

beti ere bertaraten den pertsonarekin batera. Espazio publikoetarako sarbidea sustatu behar da, betiere pertsonentzat, beste animalia batzuentzat edo gauzentzat arriskuak ez badira.

Erakusketa eremuko ezaugarriak direla eta, Osoko Bilkurak erabaki du konpainiako animaliekin sartu ahal izaneren dela eraikinaren behealde osora, erakusketa gunera izan ezik, maila guztietan dauden elementuen segurtasuna bermatzeko.

- Munizio Olako aparkalekuak

Jakinarazi da, Nafarroako Gobernuak Ondare Historikoaren Zerbitzuarekin hitz egin ondoren, baimena eman dutela Munizio Olako hiru eremutan aparkalekuak jartzeko, Pirinioetako Planarekin lotutako ekintzen deialdiaren barruan diruz lagundutako proiektua garaiz idatzi ahal izateko. Proiektua Orbaizetako Udalak eta Aezkoako Batzarre Nagusiak sustatu dute. Kokapen horiek eta zoruaren ezaugarriek Ondareko Sancho jaunak adierazitako jarraibideak beteko dituzte. Proiektua Osoko Bilkurari aurkeztuko zaio, berrius dezan.

- Los Mozolos Tokiko Ehiztari Elkartearen kontuak.

Elkarteak urteko bilera egin du, kontuak aurkezteko, eta horren kopia bat helarazi dio Batzarre Nagusi honi. Osoko Bilkura jakinaren gainean geratu da.

- Eskolako garraioa.

Haranetik kanpo ikasten duten ikasleen gurasoek aurkeztutako idazki bat irakurri da. Eskualdeko erakunde guztien laguntza eskatu dute, aurreko ikasturtean 2023-2024 ikasturtean garraio gastuak finantzatzea ahalbidetu zuen hitzarmenaren antzeko hitzarmen bat sinatzeko.

Presidenteak azaldu du Pirinioetako Mahaiak berak eramaten duela gai hori, gaiarekin lotura duten toki erakunde guztien babesarekin. Aurreko urtean hitzarmena Proiektu Estrategikoen Zuzendaritzarekin sinatu zen, eta aurten, izan den Gobernu aldaketa dela eta, ikusteko dago nola geratzen den kokatuta. Momentuz, Erroibarko Udalak eta Aurizkoak hartu dute beren gain eremu osoko gastuak ordaintzeko behar diren kopuruak aurreratzeko ardura, urte amaierara arte; eta gero ikusiko da zein den azken irtenbidea, behin Nafarroako Gobernuaren azken antolamendua ikusita.

- Osoko Bilkurari jakinarazi zaio Idazkaritza harremanetan jarri zela Foruzaingoarekin, Iratiko Zaintza eta Informazio Zerbitzuko langileek Erlan inguruan erosketa orga bat, kanpin denda bat eta paper pertsonal batzuk zituen plastiko bat jaso zituztelako. Egun batzuk zeramatzen leku berean, eta bitartean ez zen inor agertu. Gauza pertsonalen artean, frantziar nazionalitateko pertsona bati zuzendutako gutun bat zegoen. Ez zekitenez pertsona hori desagertuta egon zitekeen edo, besterik gabe, bere gauzetako batzuk utzi zituen, Foruzaingoarekin harremanetan jarri ziren, eta haiek arduratu ziren gauzak jasotzeaz eta kasuaren jarraipena egiteaz. Une honetan ez dago gertaera horri buruzko berri gehiagorik.

- Digitalizazioa: zuntz optikoaren hedapena

Informatu da zuntz optikoa hedatzeko lanen jarraipena egiteko behaketan hainbat akats antzeman direla, exekuzioarekin lotutakoak: sakonera txikia zenbait lekutan, gaizki egindako junturak, neurri bera ez dituzten hodiak eta abar. Akats horiek guztiak zuzendu egin behar dira eta legezko eskakizunen arabera egin behar da eronbidea. Hori dela eta, obrak ageiten ari den enpresarekin harremanetan jarri gara, obra entregatu aurretik akats guztiak berrikusteko.

- Pirinioetako mahaia.

Mahaia nahiko kezkatuta dago Pirinioetako Planarekin zer gertatuko den eta Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusia desager daitekeen. Bileran bat eskatu da Nafarroako Gobernuko eta Parlamentuko lehendakariarekin, gai horri buruzko informazioa izateko.

- Jakinarazi da Musika Eskolak Batzarre Nagusiari eman diola bere garaian Batzarreak ikasleentzat erosi zuen pianoa. Aezkoako Etxean egonen da.

- Accionako obrak

Acciona egiten ari den linea elektriko berriaren obrak berrikusi dira, eta lanak behar bezala egin dira: beharrezko zuhaitz guztiak atera dira, sustraiak barne, eta zurgarria ez den guztia kendu egin da. Zuhaitz zurgaiak enkantean jarriko dira. Sariozar aldean zati batzuk konpontzeke daude, batez ere pasabide kanadarra, materialek itsutu baitzuten, eta nibelatzeko makina bat igaro behar dute pista baldintza onenetan uzteko. Bileran bat egin da enpresa sustatzailearekin, eta aurreikusten da aurki ordainduko dituztela kalte ordainei eta urteko mantentze lanei dagozkien zenbatekoak; ubideagatik konpentsatzeari buruz negoziatzen jarraitzen da.

- Biosferaren Erreserba.

Irailaren 21ean, Nafarroako Gobernuak Biodibertsitate Zerbitzuak igorritako mezu elektroniko bat jaso zen, Batzarre Nagusiari jakinarazteko Estatuko MaB Batzordean aho batez eman zitzaiola oniritzia Iratiko Biosfera Erreserbari. Behin betiko onarpena UNESCOk eman behar du.

Nafarroako Gobernuak Ministerioari galdetu dio hurrengo urratsei buruz, eta ea ebazpenerako datarik badagoen; beraz, informazio horren zain gaude.

ZORTZIGARRENA.- GALDE-ESKEAK

Ez da galde-eskerik egin.

Eta aztertzekeo gai gehiago agertu ez denez, bilkura bukatutzat eman da arratsaldeko hirurak eta hogeita hamar minutuak zirela. Errandakoa jasotzeko akta hau luzatu da, eta, nik, idazkariak, egiaztatzen dut.